

# 2019 Eremuak Jardunaldiak

*Natura/k*



Eremuak-ek, arte garaikidearen esparruko ekoizpenerako zabaldutako programa izanik, urteroko jardunaldien beste edizio bat antolatuko du Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon, gaurkotasan artistikoko kontu garrantzitsuen inguruko gogoeta eta eztabaida eragiteko asmoz, nola Euskal Herrian, hala esparru zabalagoan.

Horren harira, 2019 Eremuak Jardunaldien helburua da sentsibilitate, jarrera eta adierazpen jakin batzuei oihartzuna eskaintzea, hain zuzen, aspaldidanik natura izenez ezagutu ohi den horren hainbat alderdirekin gutxi-asko harreman nabarmena izan duten horiei, ikuspuntu askotatik abiatu eta era askotara gauzatu arren.

Antolatzaileek zehaztu dutenez, «dena den, kontzeptu horrek nolako arazoak eragin ditzakeen jakitun izanda, aukeraturako gai-ardatza gizatiarraren eta ez gizatiarraren, bizidunen eta bizigabeen, artifizialaren eta ustez naturala denaren arteko harremanen berezko konplexutasunak eragiten dituen jarrera sinplifikatzaile batzuei eskainitako kantu huts bihur ez dadin, egokia iruditu zaigu terminoari pluraltasunaren ñabardura eranstea (naturak, -k eta guzti, edo naturalezas -s eta guzti), horrek aukera emango baitigu artearen munduko errealitatea eta sortzen dituen edo aurre egiten dien natura guztiak aintzat hartzeko».

## PROGRAMA

### Urriak 17, osteguna

#### Lantegia 1

17:00: Aurkezpena

17:15: Sergio Prego

17:45: *Latitudes* (Max

Andrews eta Mariana Cánepa Luna)

18:15: Atsedena

18:30: Natalia Valencia Arango

19:00: Galderen txanda

19:30: Aurkezpena: *eremuak#6* aldizkaria + *Cuaderno de artista* (Iratxe Jaió)

### Urriak 18, ostirala

#### Lantegia 1

11:00: Fernando García-Dory

11:30: Azala (Idoia Zabaleta)

12:00: Fundación Cerezas Antonino y Cinia (Alfredo Puente)

12:30: Galderen txanda

13:00: Yael Messer

17:00: Julia Spinola

17:30: Jon Otamendi

18:00: Atsedena

18:30: Borbála Soós

19:00: Galderen txanda

19:30: Bik Van Der Pol

### Urriak 19, larunbata

#### Lantegia 1

11:00: Ana Laura Aláez

11:45: María Ptqk

Golem Zinemak

12:45: Kontzertua:

Hidrogenesse

////////////////////////////////////

Urriak 17 > 19

Osteguna > Larunbata

#### Jardunaldiak:

Lantegia 1

Sarrera dohainik leku guztiak bete arte

#### Hidrogeneseren kontzertua:

Golem Zinemak

Sarrera dohainik

gonbidapenarekin, jaso Az Infon

////////////////////////////////////

Eremuak - Arte garaikidearen esparruko ekoizpenerako zabaldutako programa. Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao izan da Eremuak programa egiteko erakunde.

////////////////////////////////////

Kontsultatu programa osoa hemen:

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)  
[eremuak.net](http://eremuak.net)

////////////////////////////////////

**eremuak**

